


# Txepelkerien txapelketa



**SONIA GONZALEZ**  
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Lutxanako lagun batek eta biok gogoratzeari ekin genion aurrekoan: kutsadura, hildakoak, protestak, sirenak, isuriak, hildako gehiago... Arratoiak ginela Bizkaian kantatzen zuen Eskorbuto. Txiki-txikitatik ikasi genuen gure bizitzek ez zutela ardurarik. Industria-birmoldaketa etorri zen gero eta, lindanoak memoria lapurtu izan baligu bezala, horiek guztiak ahaztea hobetsi genuen.

Desindustrializazio prozesuak Estatu osoari eragin zion. *Conditio sine qua non* izan zen Europara sartzeko. Izan ere, Europak hasiera-hasieratik planifikatu izan du lanaren banaketa estatukideen artean. Hala, Espainiako Estatuari hirugarren sektorean espezializatzea tokatu zitzaion eta, horren barruan, turismoan. Toki ezin aproposagoa da, bere eguzki eta paellekin, sangria eta *fiestarekin*... eta, jakina, edozein azterketatan, nahi barik ala nahita, ahazten diren putetxe guztiak. Espainia liderra da prostituzioaren negozioan: lehenbiziko postua European, hirugarrena mundu mailan.

Denok dakigu turismoak zer dakarren. Batetik, soldata baxuak eta prekaritate handia; aldi baterako kontratuak, udako sasoian baino jango ez bagenu bezala; zerbitzu anitzeko enpresak eta esplota-

ziorako irudimenezko tresnak... Bestetik, hirien turistifikazioak herritarrak kanporatu egiten ditu, etxebizitza bat esku-ratzea ezinezko bihurtuta. Euskal Herri osotik zehar ari gara hezur-mamietan pairatzen: Bilbon, Donostian, kostaldean, Iparraldean...

Eta hortxe Guggenheim, proiektuaren bandera-ontzia. 25 urtetako negozioaren loriak kantatu izan dituzte berriki hantxan. Barra-barra sartzan omen da dirutza... Bai, baina hotel, inbertsio-funts eta multinazionalak jabeen poltsikoetara. Kito.

Baina ez dezagun ahaztu turismoa mugikortasunean oinarritzen dela. Turista bat toki batetik beste batera mugitzen den pertsona da. Azken urteotako turista uholdeak posible izan dira garraioaren eta, batez ere, hegalaldien prezio merkeagatik. Orain, petrolioaren gainbeheran bete-betean sartuta gaudela, zer? Ryanairreko zuzendari orokorrak abisatu du honezkerok: hegalaldi merkeak amaitu egin dira. Eta ez da zerbait koiunturala edo gerrak sortutakoa; aitzitik, lehengaien eskasia da gerraren arrazoietakoa bat.

Honen guztiaren eragina pairatzen hasiak gara, depositua betetzen dugunero, adibidez. Berogailuari beldurrez begira-

tzen diogu, baina beldur handiagoa eman beharko liguke jakiteak oraindik piztu behar ez izana aldaketa klimatikoaren erru zuzena dela.

Lurraren muga fisikoak gainditu egin ditugu eta horrek ez dauka bueltarik. Ez dagoen tokitik ezin da atera. Eta horrek egitura sozioekonomiko osoan ezin aurreikusi dezakegun lurrikara sortuko du. Bien bitartean, beste Guggenheim bat eraikitzean tematurik diraute. Proposamen ezin zoroagoa: amaituko den negozio bati tiraka jarraitzea, non eta biosferaren erreserba baten erdi-erdian. Zer da hau, baina, txepelkerien txapelketa, ala?

Txiki-txikitatik ikasia daukagu. Gure bizitzek ez dute ardurarik sistema kapitalistan, berdez, morez edo edozein kolorez margotuta datorrela ere. Eta ez dute ardurarik sistema hori babestea helburu nagusitzat duten agintarientzat ere.

Datorren koiunturarako prestatzen egon beharko ginatke. Denbora erlatiboa da, baina ez mugagabea. Birmoldaketa sakonagoa gauzatu beharko da, pasa den mendearan amaieran inposatu zigutena baino. Oraingo honetan nahi eta nahi ez, ezinbestez eta derrigor. Eurek ere badakite, baina zintzotasuna eskatzea gehiegi bide da. ●